

1979-VIII-27

Gernikan, Bizkaiko Juntetxean, 1979.eko Abuztuaren 27an, arratsaldeko seietan, Seber Altube euskaltzainaren mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, K. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, J. Basterretxea, J. Berrojalbiz, F. Bilbao, P. Charritton, J. A. Etxebarria, X. Kintana, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. Oleaga, S. Onaindia, J. Oregi, J. A. Retolaza, M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

A. Zavala, J. M. Barandiaran, J. Gorostiaga, D. Intza, A. Labayen, P. Lafitte eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Dionisio Abaitua Gernikako alkate jaunak ongietorria eman die batzarkideei, eta Jose Antonio Ardantza Arrasateko alkate jaunarekin batean mahai nagusian eseri da.

L. Villasante, euskaltzainburuak, agurraren ondotik, ospakizun honen asmo eta helburua agertu ditu. Gernikako hau, urte guzian egitekoak diren lanen hasiera dela esan du, Arrasateko Biltzarra eta Nazioarteko Euskalarien Aurkiketak gertakizun nagusi bezala azpimarratuz.

K. Mitxelenak gramatika lanen gaurko egoera aipatu du bere txostenean, Seber Altubek arlo horretan egindakoa gogora ekarriz.

J. L. Lizundia eta J. A. Letamendia, antolakizun eta hizkuntzarekiko batzorde bien idazkariak, Abenduko Biltzarreko aurregitaraia aditzera eman dute.

J. San Martinek, Nazioarteko Euskalarien Aurkiketak aipatu ditu bere txostenean, datorren udan egitekoa den gertakizun berri honen berri eman eta helburuak azalduz.

J. M. Velez de Mendizabal mintzatu da, gero, Seber Altube zena-ren bizitzari buruz.

J. A. Arana Martijak, Seber Altube bera euskaltzale bezala eta Gernikako euskara aztertu ditu, bertako idazle eta idazlan ezezagunak agertuz, batez ere Domingo Kanala-Etxebarria.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Goizeko hamaiketan, euskaltzain osoek Gernikako Udaletxean egin dute hilabeteoroko batzar arrunta.

H-ari buruz egitekoa den izen zerrendan jarraituko dire irizpideak zortzi pundutan finkatu eta ontzat eman dira. Iraileko batzarrera azken zerrenda ekartzeko gelditu da batzordea. Beste hilabete baten epea utzirik, eta jasotako oharrak kontuan direla, Urriko batzarrean emango zaio ondar birrespena.

Euskaltzaindiaren IX Biltzarrerako izendatuak diren batzorde bietakoak, Hizkuntz eta Antolakizunekoak bertan direlarik, aurregitara eta gaien banaketa egin da. Hasiara Abenduaren hogeian, ostegunez, eguerdiko hamabietan izango da, sarrerako hitzaldi eta aurkezpenarekin. Arratsaldean, hitzaldi edo txosten hauek emango dira, lauretatik aurrera: A. Irigoyen, "Galdegaiaren arazoaz azterketak eta proposamenak"; A. Arejita, "Aditzaren galdegaitasunaz"; L. Akesolo, "Galdekizunari buruz xehetasun batzuk"; P. Altuna, "Zenbait sintagmaren batasun hauskorra Ziburuko Etxeberrirengan". Hogeitabatean, ostiralez, beste hauek: M. Azkarate, "-N eta -Z atzizkiak denborazko sintagmetan Axularrengan"; E. Knörr, "Bezala" gaizki erabiltzeaz; "Ahal, -a eta direla eta, zenbait proposamen"; "Beharreko", "Beharrezko" eta antzekoak; K. Rotaetxe, "Euskal ergatiboaren sujetotasunaz"; "Lekutasunezko formen mugabidea ta determinazioa"; I. Sarasola; J. Haritschelhar, "Aditz izenaren morfosintasia"; J. A. Letamendia, "Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak"; P. Lafitte, "Aditzaren aspektuez"; A. Eguzkitza, "Aditzaren aspektuaz". Hogeitabian, larunbatez, R. de Rijk, "Errelatiboa idazle zaharretan"; L. Villasante-M.^a P. Lasarte, "Perpauz kausalak Lapeyre idazle baitan"; R. Badiola, "Perpauz kausalak Mogelengan"; P. Goenaga, "Perpauz konpletiboak Agirre Asteasukoarengan"; J. A. Mujika, "Zenbait konpletiboren azterketa" (J. Leizarraga); K. Mitxelena, "Baldintzazko perpauza". Sarrera, hitzaldi eta txosten hauek Arrasateko Politeknik Ikastegian izango dira, tartean elkar hizketa eta atsedenaldia izanik. Hogeitahiruan, goizeko hamaiketan, Udaletxean, Euskaltzaindiaren batzar irekia IX Biltzarrari amaiera emanez.

Aurregitara behin behineko da eta Hizkuntz batzordearen hurrengo bilera baiño lehen, nahi duenak, zuzenketa edo oharrak egin ahaliko ditu, gero era bat finkatua uzteko.

* * *

Arratsaldeko batzar irekia, Gernikako Andra Mari Koralak abestu dituen kantuekin hasi eta amaitu da. Entzundako abesti gehienak Seber Altubek berak gertatuak izan dira.

Batzarra amaitu ondoan, Juntetxean meza eman dute hildako euskaltzaleen alde, bertan ziren elizgizonek. Han zen Elisabete Altube, Seber zenaren biloba, Paristik ospakizun hauetara etorria.

Meza ondoan, hilerrira joan dira batzarkideak, Seber Altuberen hilibian otoitz egin eta lore burute bat Euskaltzaindiaren izenean ezartzera.

Euskaltzainburua

Luis Villasante

Idazkaria

José M.^a Satrustegi